

Irisasi, gazteen babes gunea

Usurbilgo baserri artean dago Irisasi, portaera arazo larriak dituzten gaztetxoei laguntzeko duela gutxi ireki duten zentroa; haurtzaro egokia izan ez dutelako izaten dituzte halako joerak


KEPA URBIETA

Usurbil

Irisasi. Esperantzari zabaldu-tako ate bat izan daiteke, baina lan handia eskatzen duen errealitatea da. Orain artean, askotan, gizarteari ezkatutu egin zaio. Bat dator horretan Ainara Rubert Irisasi zentroko zuzendaria. Gogorra izan behar du egunero lan baldintza horiekin lan egiteak. Gogorra mundura sortu eta bakarrik sentitzeak. Irtenbidea eman nahian, portaera arazo larriak dituzten gaztetxoen zentroa zabaldu berri du Gipuzkoako Foru Aldundiak Usurbilen (Gipuzkoa).

Bizileku terapeutikoa da Irisasi Rubertek dienez, eta «terapeutiko» hitza azpimarratzen du: «Bizilekua da, gazteak hemen biziko direlako. Terapeutiko hitza, aldi, beste zentroetatik hereizten gaituen da. Psikologo bat dago, beste zentro askotan egon ohi ez dena. Aldunditik bidalitako txostenak irakurtzeaz, gaztetxoen jarraipena egiteaz eta izaten dituzten bisitak kudeatzeaz arduratzen da». Beste zentroetan, gazte bakoitzeko hezitzaile bat egoten da. Hemen, batentzako hiru. «Helburua, gazteak babestuagoegotea, euskal bat edukitzea eta eurekin denbora gehiago egonez ekintzak betetzea da». Jarduera eginez, hezitzaileekin harremanak lantzen saiatzen dira.

Irisasiko zuzendariak dioenez, gaztetxoak arlo guztietan «integratzea» da helburu nagusia: bai familian, bai gizartearen, bai eta lanean ere. «Uda pasatutakoan, bakoitza dagokion lekura joaten hasiko da, dela eskolara, dela lantokira. Horrez gain, euren adineko



Irisasi zentroa Usurbilen dago, baserri artean. JEN URIBE / ARKAZO PRESS

jendea ezagutzeko asmotan, eskola kanpoko jardueretan parte har dezaten saiatuko gara; kirol talde batean, esaterako. Familiarekin ere harremanak mantentzen dituzten saiatzen gara eta hasieratik bisitak izaten dituzte». Kasu bakoitzaren arabera bisita gehiago edo gutxiago izaten dituzte. Hori Aldundiak erabakitzen du.

FAMILIAREN GARRANTZIA. Senideen egitekoa oso garrantzitsua dela dio Rubertek. «Zerbait egin behar bada familia jakinaren gainean jartzen da. Orain artean dena onartu dute eta ondo joan da. Eta familiak duen kanpo irudia ere oso garrantzitsua da, bisita kopuruak mantendu edo gehitzeko».

Irisasin dauden gaztetxo gehienak familia hondatutatik datoz: «Gazteek sozializatzeko arazoak izaten dituzte. Batzuek arazo psikologiko edo psikiatrikoak, eta beste batzuek portaera arazo larriak, besterik gabe. Seguru asko haurtzaro egokia izan ez dutelako sortu dira; adibidez, batzuk ez dira eskolara joan. Gure kasuan, familia hautsitatik datoz asko: gurasa-ak alkoholikoak dira edo drogaren menpe daude, edo desoreka psikologikoa dute». Irisasitik ahalgintzen dira familiei ere laguntzen: «Tratamendu beharrean dauden



Gazteak euskara ikasten. JEN URIBE / ARKAZO PRESS

«Gazteek sozializatzeko arazoak izaten dituzte, seguru asko haurtzaro egokia izan ez dutelako»

«Halako zentroen beharra dago, baina 12 gazte etxe batean batera bizitzea gehiegizkoa da»

AINARA RUBERT
IRISASI ZENTROKO ZUZENDARIA

tean behintzat oso egoki moldatu dira Irisasira». Gazteak Aldundiak duen beste egoitzetatik edo familietatik zuzenean joaten dira Usurbilera. «Larrialdiko zentroak daude eta hara eramaten dira gazteak lehenbizi. Aztertu eta familiara itzultzen den edo egoitza batean sartzen den erabakitzen da. Portera arazo larririk ez badu, adibidez, pisu normalizatu batera joango da eta han bere adineko edozeinek bezalako bizimodua izango du; hezitzaileak egongo dira, hala ere». Hezitzaile kopuru hori Irisasiko baina txikiagoa izango da. Baina portaera arazoak edo arazo psikologikoak dituelako gaztea ez bada pisu horietan moldatzen, Irisasira ekartzeko eskaera egiten da. Aldundiak kasua aztertu eta erabakitzen du onartu ala ez. «Batezko bada, bilera egiten dugu prozesua nolako izango den erabakitzeko eta jarraitu beharreko pausoak eta izango dituen harremanak zehazteko. Ondoren adaptazio prozesua hasten dute».

ZAILTASUNAK. Lan gogorra dela onartzen du zentroko zuzendaria, eta behar denetan jakin egin behar dela lan kontuak alde batera uzten. «Estresak sortuta, baja kopuru handia duen lana da gurea».

Zailtasunak ere baditu. Rubertek hiru aipatu ditu: «Batek, familia dago eta, bestetik, Aldundia; gu baldintzatuak gaudu. Gaztea eskuetan prozesu bat duela etortzen da, eta nahiz eta guri iruditu beste zerbaitek mesede egingo liukeela, prozesu hori betetzera mugatuak gaudu. Noski, proposatzeko aukera badugu. Beste zailtasun bat gaztearen egoera da. Ez dago etxean, gaztea da eta familiaren beharra du. Etxe askotatik pasatzen dira eta nazkatu egiten dira egoerarekin. Eta azkenik, halako zentroen beharra dago, baina, 12 gazte etxe batean batera bizitzea gehiegizkoa da nire ustez. Zaildu egiten du. Helburua, bakoitzak prozesu indibiduala jarraitzea da». Lan taldea dute guztia errazteko. Irisasiko hezitzaile kopuru handiak erraztu egiten du. Gehienak, psikologoak, hezitzaileak edo psikopedagogok dira. Hala ere, Ruberten esanetan, izaera da garrantzitsua, eta hezitzaile batek «herremanetarako gaitasuna, empatia eta afektibitatea» izatea.

kasuetan, hemendik laguntza non jaso dezaketen adierazten diegu eta dituzten aukerak azaldu. Familia tratamenduan jarri eta hobetzen bada, gaztea etxera itzul daiteke. Zentro guztiek dugun helburu idealizatua da».

Gaur egun, bi gazte daude Irisasin, eta beste hiru hilaren 28an sartuko dira. Dagoeneko adaptazio prozesuan daude. «Hasieran heldurtuta etortzen dira. 'Nora ekarri nauzue? Urruti dago! Nola etorriko da familia bisitan...' esaten dute, baina gerora ondo; orain ar-